



## Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2018ko apirilaren 30etik maiatzaren 4rako astea

---

### ➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

### ➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

### ➤ **GURE IKUSPEGIA**

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROPA: PMI MANUFATURA-INDIZEA



#### Datuaren analisia

anufakturen sektorearen **behin betiko PMI indizea** martxoko 56,6 mailatik azken hamahiru letako minimoetara (56.2) jaitsi zen apirilean, baina 56,0ko aurreikuspena baino pixka bat orago kokatu zen. Hazkundearen ahultzea eskari berrien eta enpleguaren handitze otelagoengatik (baina sendoak oraindik) gertatu zen batez ere.

#### Adierazlearen azalpena

MI Manufaktura-indizeak hileroko erostetako profesionalen eta enpresetako exekutiboek euroguneko manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko urreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera urreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik orakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia zkurten ari den seinale.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### FEDen BILERA

#### DONDE SE SITUARÁN LOS TIPOS

Reunión	Prob aum	Prob reduc	1.5-1.75	1.75-2	2-2.25	2.25-2.5
06/13/2018	96.7%	0.0%	3.3%	96.7%	0.0%	0.0%
08/01/2018	96.9%	0.0%	3.1%	92.2%	4.7%	0.0%
09/26/2018	98.9%	0.0%	1.1%	35.4%	60.5%	3.0%
11/08/2018	99.0%	0.0%	1.0%	32.5%	58.4%	7.7%
12/19/2018	99.5%	0.0%	0.5%	16.0%	44.8%	34.4%
01/30/2019	99.5%	0.0%	0.5%	14.9%	42.8%	35.1%

#### Datuaren analisisia


ste honetan, **Erreserba Federalak bilera** egin zuen, eta ez zituen epe laburreko interes-tasak datu. Halaber, bileraren ostean egindako jakinarazpenak ere ez zuen nobedade aipagarririk eskaini. Hala ere, aurreikuspenek ekaineko hurrengo bilerarako igoera bat egongo dela iragarazten dute. Erakundeak, gainera, inflazio-helburuaren aurtengo aurreikuspena % 2an antendu zuen. Orain arte, Estatu Batuetako ekonomia Fed-eko kideek aurreikusi zuten moduan jarraitzen ari bada ere, ziurgabetasuna handiagoa izan da zerga-erreformaren ondorioz. Erregulazioaren eraginez, langabezia-tasak egonkor jarraitzea espero du erakundeak.

#### Adierazlearen azalpena

Federal Reserve System (FED) Estatu Batuetako banku-sistema zentrala da. Herrialdeko diru-politikako erabakiak hartzea, banku-erakundeak ikuskatu eta arautzea, finantza-sistemaren gonkortasuna mantentzea eta gordailu-erakundeei, Estatu Batuetako gobernuari eta atzerriko erakunde ofizialei finantza-zerbitzuak eskaintzea dira bere egitekoak. Bere diru-politikaren bitartez, enplegu erabatekoa, prezioen eraginkortasuna (inflazioa eta deflazioaren prebentzioa) eta epe luzean interes-tasak moderatzea dira lortu nahi dituen helburuak.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: ENPLEGUAREN TXOSTENA



### Datuaren analisia

Estatu Batuetako langabezia-tasak % 3,9 egin zuen beheira apirilean, % 4tik jaisten den lehen dia 2000tik. Apirilean **164.000 lanpostu berri sortu ziren**, analistek espero zutena (190.000) baino pixka bat gutxiago. Edonola ere, aurreko datuak gorantz berrikusi ziren, eta efektu hori erakatu egin zen nolabait. Bestalde, soldaten batez bestekoa ordua 4 zentabo igo zen iragan leian, % 0,1en baliokidea, espero baino gutxiago, 26,84 dolarretan kokatzeko. Lan-indarreko arte-hartze tasak, lanean edo enplegu bila dauden estatubatuarren proportzioak, pixka bat jaio egin zuen, % 62,9tik % 62,8ra.

### Adierazlearen azalpena

Enplegu-txostena hilerok argitaratzen du Estatu Batuetako Lan Sailak. Estatu Batuetako lan-erkatuaren egoerari buruzko txosten osatu bat da, eta hainbat datu aurki daitezke bertan; horien artean nabarmenenak: enpleguaren sorrera (nekazaritza-sektorea kanpo utzita), langabezia-tasa eta soldaten bilakaera. Txosten honi esker, Estatu Batuetako ekonomiaren bilakaeraren gaineko eronostiko bat egin daiteke. Lan-merkatua hazten ari bada, herritarren errenta erabilgarria handitu giten da. Beraz, kontsumitzailearen gastua igo daiteke, BPGd-aren igoera bat eragingo lukeena, eta, ondorioz, herrialdearen ekonomiaren hobekuntza.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### PMIA: MANUFAKTUREN ETA CAIXIN ZERBITZUEN



#### Datuaren analisia

**koizpenaren Caixin PMIA** 51.1 puntu igo zen apirilean. Datua analistek espero zutena (50,9) a aurreko datua (51) baino handiago izan zen.

zerbitzuen sektoreari dagokionez, indizea 52,9ra igo zen martxoko lau hileko minimotik (52,3), ahiz eta 2018ko lehen bi hilabeteetan baino ahulagoa izan zen.

**MI konposatuari** begira, **indizeak** hedapen sendoa erakutsi zuen, apirilean 52,3ra igo baitzen urreko hileko 51,8tik. Bada, hazkunde ekonomikoa egonkor samarra dela esan dezakegu.

#### Adierazlearen azalpena

MI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hileroko erosteketen profesionalei eta enpresetako exekutiboek lanfaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. abrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, alderantziz, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

## KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus.
05/07	Eurogunea	Markit Eurogunea xehekako merkataritza PMI	--
05/07	Eurogunea	Sentix inbertsiogilearen konfiantza	21.0
05/08	Alemania	Balantza komertziala	22.5b
05/08	Alemania	Hileko SA industria-ekoizpena	% 0,8
05/08	Estatu Batuak	JOLTS eskura dauden enpleguak	6075
05/08	Txina	Balantza komertziala	\$27.75b
05/09	Japonia	CI lider indizea	105.1
05/09	Frantzia	Hileko industria-ekoizpena	% 0,4
05/09	Frantzia	MoM manufaktura-ekoizpena	% 0,9
05/09	Espainia	Urte arteko NSA industria-ekoizpena	% 3,0
05/09	Estatu Batuak	MoM IPP elikagairik eta energiari gabe	% 0,2
05/09	Estatu Batuak	Hileko handizkako merkataritza-salmentak	--
05/09	Estatu Batuak	MoM handizkako inbentarioak	% 0,6
05/10	Japonia	BoP oinarritzko merkataritza balantza	¥1023.1b
05/10	Txina	Urte arteko KPIa	% 1,9
05/10	Eurogunea	EBZren hileko buletina	0
05/10	Italia	Hileko industria-ekoizpena	% 0,5
05/10	Erresuma Batua	Balantza komertziala	-£2000
05/10	Erresuma Batua	Hileko industria-ekoizpena	% 0,2
05/10	Erresuma Batua	MoM manufaktura-ekoizpena	-% 0.2
05/10	Erresuma Batua	Banku-tasa Ingalaterrako Bankua	% 0,500
05/10	Erresuma Batua	NIESR BPGd-aren kalkulua	--
05/10	Estatu Batuak	Hileko KPIa	% 0,3
05/10	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	218k
05/11	Espainia	Hileko KPIa	% 0,8
05/11	Espainia	MoM azpiko KPIa	--
05/11	Estatu Batuak	YoY kontsumorako prezioen indizea	--
05/11	Estatu Batuak	Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea	98.3
05/11	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	--
05/11	Estatu Batuak	Aukerak Mich. U.	--



## JRTSA:

irtsa-indizeek balantze positiboekin amaitu zuten astea Iropan eta Asian, eta balantze mistoarekin AEBetan. Batzekoa da herrialde gorakorrek, oro har, behera egin zuten ( % 1,17), dolarraren sendotasunaren ondorioz. Iropan emaitzek, Fed-en bilerak eta Estatu Batuen eta Iropan arteko negoziatioek bereganatu zuten bertizitatearen arreta. Erreserba Federalak, espero zen moduan, ez zituen epe laburreko interes-tasak aldatu, eta hori jakinarazpenean ere ez zuen nobedade jarraitirik eskaini. Hori bai, aurreikuspenen arabera, Iropan egingo den hurrengo bileran igoera bat egongo da. Erakundeak, gainera, inflazio-helburuaren aurtengo aurreikuspena % 2an mantendu zuen. Enpleguari dagokionez, langabezia-tasak egonkor jarraitzea espero da. Bestalde, AEBen eta Txinaren arteko negoziatioak jarraitu ziren, baina ez zuten akordio zehatzik egin gerra mertziala ekiditeko, merkataritza-arloko gaitetarako Iropan arteko komunikazioa estutzeko mekanismo bat jarri baino ez. Enpresa-arloan, emaitzen % 50 inguru jarraitu dira dagoeneko, eta hazkunde sendoa aurreikuspenak dituzte Europan zein AEBetan. Azkenik, batzekoa da ere Europako Batzordearen aurreikuspenak agutzera eman zirela, eta Batzordeak Euroguneko zein Iropan Batasuneko jardueraren sendotasuna berretsi dela, aurtengo eta hurrengo urteko hazkundea bertizitatearen gainetik egongo dela erakutsiz.

## ERRENTA FINKOIA:

aste lasaia "core" zor-merkatuetan, hala Europan nola Estatu Batuetan. AEBetan, Fed-en tonu zuhurragoak ez diren ia merkaturak eraginik izan. Gauzak horrela, 10 urterako bonu amerikarraren errentagarritasuna opor 10 tsi zen, % 2,95eraino. Europan, bestalde, azpiko inflazioaren datua duela hamahiru hileko mailarik txueneraino jaitsi zen, eta arreta-gune berria izan zen. Hamar urterako bonu alemaniarren 3 opor egin zituen zera, % 0,54raino. Zor espainiarren dagokionez, hamar urterako tasa 4 opor igo zen, eta arrisku-prima 75 puntuetaraino handitu zen. Kredituak, bestalde, erentzialak pixka bat handitu zituen.

## IBISAK/LEHENGAIK:

Iropan datu makroek ekarritako dezelerazio zantziek eragin negatiboa izan zuten dibisa europarrean. Horiek horrela, euroak % 1,22ko balioa galdu zuen dolarraren artean, eta % 1,32koa yenaren aurrean. Lehengaietan, errez, petrolioaren prezioa % 1,42 handitu zen. Trumpekin errenten aurkako zehapen berriak ezartzeko aukerak erentizazioa lagundu zuen. Urrearen balioa, bestetik, % 60 egin zuen atzera, 1.315,35 \$/ontza mailaraino.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	Ald. 2018
MSCI WORLD (Local)	1.578,22	0,08	-0,50
IBEX 35	10.104,10	1,80	0,60
DJ EURO STOXX 50	3.550,59	0,90	1,33
DJ STOXX 50	3.096,99	0,64	-2,54
FTSE	7.567,14	0,87	-1,57
S&P 500	2.663,42	-0,24	-0,38
Dow Jones	24.262,51	-0,20	-1,85
NASDAQ	7.209,62	1,26	4,44
NIKKEI 225	22.472,78	0,02	-1,28
MSCI GORAKORRAK (Lo)	60.567,37	-1,17	-0,51
MEXBOL	46.992,17	-2,68	-4,79
BOVESPA	83.118,03	-3,85	8,79
SHANGHAI	3.237,23	0,29	-6,53
Errusia Rts Mosku	1.146,61	-1,76	-0,68

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa astean	Ald 2018
ALEMANIA 2 URTE	-0,58	0,00	0,05
ESPAINIA 2 URTE	-0,33	0,01	0,01
AEB 2 URTE	2,50	0,01	0,61
ALEMANIA 10 URTE	0,54	-0,03	0,12
ESPAINIA 10 URTE	1,30	0,04	-0,27
AEB 10 URTE	2,95	-0,01	0,54
ALEMANIA 30 URTE	1,23	0,00	-0,03
ESPAINIA 30 URTE	2,42	0,08	-0,43
AEB 30 URTE	3,12	0,00	0,38
<b>Kreditu-spreada (op)</b>			
MARKIT ITRX EUROPE 06/23	56,14	1,70	11,22
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/23	273,40	1,87	40,97

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	Ald. % 2018
Dolarra / Euroa	1,20	-1,22	-0,49
Yena / Euroa	130,37	-1,32	-3,69
Libera / Euroa	0,88	0,47	-0,64

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2018
Petrolio (Brendt)	74,90	1,42	12,09
Urrea	1.315,35	-0,60	0,94



Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiarekin, osorik edo zati bat argitaratu.